

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

146n. Zenbakia Azilla

1990



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZARLE



ESTIBALIZ'KO BATEO-ONTZIA

- ERROMANIKU-TANKERA EDERREKOA
- EUSKALDUNENTZAT BIZI-ITURRIA
- ARABARRENTZAT GOMUTAKI EZIN-OBEA

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

~_{1,5} % 12 9 2 z ~9

1990 - 91 IKASTURTEA

< | ■

**OGEI TA IRUGARRENA
BIZKAIERAZ**

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA: 11.000 pezeta

IZENA EMOTeko-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2

BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

23.⁰ CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO: 11.000 pesetas

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

ALKARTUTA ETA NASTE BARIK

Aspaldiko urteetan munduak aurrerapen aundiak egin dauz, eta ez trebe-gaietan bakarrik, gizabideetan be bai.

Gizabideetako aurrerapenik aundienetariko bat, zalantza barik, alkartasuna da. Mundua txiki biurtu jaku eta mundutarrak auzokide garala esan lei: Alkarren barriak beingo baten jakiten doguz, bear-izanetan alkarren laguntza eskatzen eta emoten dogu, alkar ikustera joan nai dogunean, ordu laburretan joaten gara "auzokoen" etxera...

Esan dogun ori ziurtatzeko, gogoratu dagiguzan orain tuko jazokizun eta albiste batzuk.

Kubait zapaldua izan danean, Europa n lenengoz alkartu dira sortaldea ta sartaldea, eta arabiarrik geienak be barru dirala, Irak'en eginkizun ori, Kubait zapaldu ta beraganatzea, txartzat artu dabe.

Munduko gosearen aurkako ekintzak ardura aundiz begiratzen dira, ez oraindiño bear dan bestean, baiña bai geroago ta ardura geiagogaz.

Munduan ezbear bat sortzen danean, askotariko erakundeak bateratuta, beingo baten eskintzen jake minduai auzokoen laguntza.

Albiste-bideak arduratzen dira auzoko guztien artean barriak zabaltzeko mundu guztian, naizta noizean bein barri orreik jakin bear ez leukezenak be jakin, Persia-aldoko itxas-ontziak gure lurraldeetara bialdu dabezan barriakaz jazo dan lez.

Beste errazoi asko ekarri geinkez gogora, ekonomiarlokoak, kultura edo jakintza-arlokoak eta' abar.

Baiña alkartasun ori ikustean, eta munduko aberri txikiak begira, gure aberria be naikoa txikia da naizta beste asko izan txikiagoak, zalantza au datorku burura: Ez ete dabe galduko euren nortasuna alkartasun onetan? Ez ete dira geratuko urtuta lez gaurko mundua dan itxaso zabalean?

Munduak alkartasuna lortzen dauan artean, batera, aberriak euren askatasun osoa eskatzen diardue, lenago Ameriketan, lentxuago Afrika'n eta oraintsu Errusia-aldean.

Euskalerrria beti bizi izan da askatasun orren aldeko burrukan, baiña iñoz lortu barik. Lortuko ete dau orain?

Ori ikusirik, guk ez daukagu beste biderik, munduan, edo auzo onetan, besteakaz alkartuta jokatu, baiña beti barruko bizitza Oskintzan, ekonomian...) sendotzen dogula, eta auzokideen artean egiten doguzan lanetan sendo jarri beti geure askatasuna en eta buru jabetzaren alde.

Orretarako aukerea daukagu Europa barria sortzen dan sasoi onetan eta munduko arazoen aurrean artu bear doguzan jarrera guztietan.

Mundua alkartasunerantza eta Euskalerrria Burujabetza-barruan, auzokide izatera.



EUSKAL-ASTEIA: 1990

GAIK

Iragarrira daukagun Euskal-Asteia, gertu dago.

Bizkai'ko Euskal-Asteia izan arren, orain artean be egin dogun lez, gai batzutan jakitun edo trebe diran giputzak be pozik artzen doguz. Ba-dakigu, gaiñera izlari argiak dirana eta esaten dabena errez ulertuko dabela gure bizkaikideak.

Lenengo egunean Oñatibia'tar Manu'k egingo dausku berba. Euskalzale sutsu onek liburu bat idatzi dau, euskeraz, baiña gero erderatu eta erderaz argitaratu, gaia bera geienez erdeldunai dagokiena dalako. Auxe da liburuaren gaia: Euskaldunok zer eta zergaitik eskatzen dogun. Oñatibia'k liburu orretan gure kondairaren laburpena egiten dau, eta gero kondairaren barruan dagoan "filosofia" edo kondaira-barruko gurari bizi agertu. Gai ori oso egokia dala gure Euskal-Asterako uste izan dogu eta Manu'k pozik entzun dau orretarako egin dautsogun deia.

Antxiñatik ezagutzen dogu Kurutze Arregi'k Bizkai'ko Baseleizai buruz idatzi eban liburua, jakingarriz beterik datorren liburu ederra, orregaitik uste izan dogu gauza egoki dala gai oneri buruz berba egitea, izlari Agustin Zubikarai dala.

Irugarren egunean Deba'ko abadeen buru izan zan eta ZER gure aldizkarian askotan idazten dauan Lazkao'ko Anes edo Anastasio Arrinda izango dogu izlari. Gipuzkoa'n dago au be, baiña Bizkaia'n artu-emon asko izan dauz. Gai askotan da jakitun Anes, baiña guk ain bizi dan gai bat eskiñi dautsagu, Balearen arraintza ta euskaldunak.

Aspaldion entzuten dogu gure inguruan, ainbeste elerti edo literatura-lan egin dabene Euskalerriko Abadeai omenaldi bat egin bear geunskioela, baiña orretarako, lan ori noraiñokoa izan dan aztertu bear da. Eta nok egin obeto lan au Literaturazko libururik ederrenak argitaratu dauzan Aita Santi Onaindia'k baiño. Berari ezarri dautsagu ba itzaldia gai oneri buruz.

Eta azkenengo egunean Kofradien arazoa aztertuko dogu, neu izlari nazela. Entzuleak ez dot uste jakingo dabenek Euskalerrian kofradiak zer izan diran eta euren kondaira zelakoa dan. Arazo oneri buruz azterketa batzuk egin-bearra izan neban Zeanurin eta zeaztasun aundietara sartu barik egingo dogu itzalditxu bat.

ZER'eko idazleai, irakurleai ta laguntzailleai dei egiten dautsegu egun oneitan gure Euskal-Asterata etorri daitezana.

~~EGITZARRIA~~ EUSKAL-ASTEIA

- Azillaren Nan: Gure kondairaren irakatsiak (Oñatibia'tar Manu'k).
- Azillaren 27'an: Baseleizak Bizkaia'n (Zubikarai'tar Agustin'ek).
- Azillaren -28'an: Euskaldunak eta balea (Arrinda'tar Anes'ek).
- Azillaren 29'an: Abadeak eta elertia (Onaindia'tar Santi'k).
- Azillaren 30'ean: Kofradiak (Olazar'tar Martin'ek).

Ordua: 8'etan. Lekua: Eskolapioen Ikastetxean. Iru ordu lauren itzaldia eta ordu lauren alkar-izketea.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

MAITASUNA, NUN?

Ala galdetzen zuan, oraindik orain, euskaldun izparringi batek.

Maitasuna usoa ba'litz, Euskalerriko mendietan ez luke atsedetik izango; arizti oparoak (nola esan lezaioke "roblea" ariztari, Euskeraren bizkarretik parre egiteko ez bada?) galdu ziran gure artetik.

Ordez, piñua.

"Insignis", ori bai. Piñurik arloteena.

Papera egiteko (eta bitartean errekak iltzeko) bestetako balio ez duan zugaitza. Ezer ederrik egiteko balio ez duan piñua...

Piñua ote da arlotea ala gu euskaldunok ote gera arlote? Dirua eta diru errezaren ondoren gabiltzan artean, arlotetasuna agertuko zaigu maiz eta ugari.

Usoak aritza maite.

Maitasunak ere eskatzen du bere giroa.

Nun da maitasuna?.

Usoa balitz, gure artean atsedetik ez.

Ezta aritzez beterik ba'leude gure euzko-mendiak; aritz-azpian beti izaten bait da asmo gaiztoko eiztariren bat gora begira...

Gutxi izan, burnia bezela txingudi eta mailluaren artean egon, eta, alaz ere, alkarri mokoka, alkarri zaunka, alkarri ortzaka.

Maitasuna, nun?

Leizeren batean gordeta ez bada, agerian beintzat ez degu ikusten. Izan ere, maitasunak bere giroa bear du eta giroa ari zaigu aspaldian aldatzen.

Era bat.

Gure errietako aizeak, zenbait egunetan, zikiñak janda daude; arnas-biderako gaiztotuak. Erreka zuloetan, ur gardenik ez. Edateko gai dan urik ez da gure ibaie-tan nabari. Mendi garbirik ez dago: sasia eta sastrakea edonun. Eta, axariak ugari.

Mendiak zikiñ eta pintxodun alanbrez esiak...

Kaleetan, autsa eta kea.

Giroaren semeak geranez, zikiñ-giro onetan garbi irauterik ez. Miña sartzen zaigu barnean arnasatik ere eta, ortik kontuak atera...

Zikiña, zerrikeria, mingoizkeria, oiek ez dira maitasunaren giroa...

Maitasuna, nun? Ala aurretik, maitasuna, zer?

Zer dan: nolakoa dan...

Zer? Gauzak zer diran ez da erreza gaur jakiten.

Edaten ditugun ardoak ardo al dira? Jaten ditugun gaztaiak gazta al dira? Artzen ditugun olioak olio al dira?

Zeiñek daki.

Gaurko egunez edozer mistifikatzen da, edozer aldaerazten da.

Maitasuna ere bai.

Maitasuna en antz-irudia arpegian, norberekeria eta egoismoa dabill ugari eta nun-nai. Ni eta neu, neroni eta neronena, nerea eta neretzako, nerekin eta neretzaz...

—Zu, maite, neretzako... (Orra zenbait maitalarien itz jarioa).

Zu, neretzako. Maitasuna al da, ala norberekeri utsa?

—Ni, maite, zuretzako... (Ez al litzake au maitasunezko egiazko jardunketa?).

Geure barruan sartzen geranean eta munduaren ardatz geure buruak egiten ditugun ordu artan bertan iltzen degu maitasuna en azia.

Ordu artan gelditzen gera puntu bat baiño txikiago: geurekeriaren atzaparretan itoak. Zer da gauza eskasagorik bere burua besterik maite ez duan giza-emakumea baiño...?

Aundi nai eta txikarragorik eziñ.

Bidea aldatu degu; atzera-martxan jarri gera.

Eta atzean, ezer-eza dago. Amiltegia.

Nolakoa da maitasuna?

Biotzak zabaltzen dituna.

Norberekeritik kanpora ateratzen gaituna.

KQKAK

Lagunari (gizaseme, abere, izaki gustieri) eskua luzatzeraz beartzen gaituna.

Biotzaren ateak parez-pare irikitzen diguna.

Apala.

Bekaizkeri eta inbidirik gabea. Justizian oiñarritua. Egiaren laguna...

Orra or usoa gure arbolarara...!



MARX, JESUS ETA BURGESKERIA

Bien artean 1.800 urte. Alde aundia biak berdinez izateko.

Jesus'ek: Anaiak zerate Aita bakar baten semeak zeratelako.

Marx'ek: Anaiak gera eta tximiñoen lengusu, materia utsetik sortu geralako.

Eta abar...

Euskalerriko semeak, kristau zaarrak, Kristautasuna zapuztu ondoren, ateismora jotzen ari dira...

Ori, guzi ori, Burgeskeriaren aurka.

Burgeskeria zaku zaar aundi bat dezu, bertan sartzeko konbeni ez zaizkigun gauza guztiak:

Kristautasuna, burgeskeria dezu...

Zenbait euskalikastola (guk geok erabiltzen ez ditugunak) oiek burgeskeria dituzte...

Zenbait euskal-aldizkari, burgeskeria dituzte...

Euskera bera ere (nolakoa dan) burgeskeria dezu...

Zenbait euskal-alkarte (gureak ez diranak) burgeskeria dituzte...

Burgeskeriaren aurka amorratuta, baiña *itzuez* bakar-bakarrik.

Egitez, ordea, burgeskeriaren alde: aotan ainbeste dezuna, kolkoan palta, alegia. Ez nijo gauzak banan-bana aztertzeraz, ez. Goiko malla batean geldituko naiz.

Gizarte burges-aberatza *berez* atea da: aberastasuna bait du burgeskeriak elburu bakar. Gizarte-aberatza *berez* ateo eta *berez* burges.

Marxismoa ere atea da.

Emen alkar jotzen dute Marxismo eta Burgeskeriak.

Marxismo ateoak, beste aldetik berriz, erri pobreak aberastasunera eramanez dituzte eta ori lortzen duanean, orra Marxismoaren ondoren, gizarte aberatze atea, burgesa ura ere... aberastasunak eramanez bait gaituzte burgeskerira.

Guk asiera nundik deguz Burgeskeriari ajolik ez. Baiña, nora goazenez eta zertarako geran, orrek bai, orrek ajola aundia emanez dio Burgeskeriari... Zertarako geran ...? Dirua sortzeko, utilitatea sortzeko, irabaziaz ateratzeko...

Burgeskeria en elburu bakarraz, urrea.

Bitartean Jainkoaren izen ona ondatzen dala...? Ajolik ez.

Gizonaren izana ondatzen dala...? Ajolik ez.

Izadiaren giroa ondatzen dala...? Ajolik ez.

Dirua eta irabaziaz, besterik ez dago emen.

Eta Marxismoak zer...? Marxismoari gure sortzerako iturburuak kezka ekartzen diote eta erabakiaz artutaz dauka: materia utsetik sortu gera gu.

Materiatik sortu bagera, materia deguz elburu, gu sortzean besterik ez zalako. Eta materiari materia urrea deguz: onek bait du pixua aundi eta kolorea eder...

Urrea, Burgeskeriak bezela.

Urrea, utilitatea, produkzioa, estajanobismoa, orra *berez* zer elburu agertzen diran... Beste elburuak kanpotik eantzita 'daude, eta zenbait Kristautasunetik artuak, millatik goraka urte zituan Europa kristauan sortu bait zan Marx eta bere Marxismoa.

Orra nun Marxismoak eta Burgeskeriak berriz ere alkar jotzen duten: biak ateo eta biak materia elburutzat.

Biak alkar borobildu dute: Burgeskeri ateoetik Marxismo ateoara, Marxismo ateoetik berriz ere Burgeskeri ateoara...

Kaiolan sartuta gaudela, alegia, arratoia bezela.

Kaiola ortatik irtetzeko Marxismoari (Al bada) gora dijoan atea iriki bearko zaio: materia utsezko atea besterik ez badu, ate ortatik, berriz ere, gizarte ateo aberats burgesera goaz...

Materia utsa jaun da jabe. Jainkorik ez, espiriturik ez.

Marxismoa eta Burgeskeria alkarren osagarri, alkarri lotuta ateismoaren ardatzean, jira ta buelta, beti berean...

Kristautasuna tesis bada eta Marxismoa antitesis, sintesis bat billatu bearko, edo ta Kristautasunera berriz biurtu.

ANES-1972

EGUNKARIAK

Bazkide begikoak:

Izpa ingien bidez, ba'dakizute noski, bi euzkal egunkari so tzeko asmoa dutela. Bata "Egunkaria Sortzen" Elkarte'koak egiña, Au batuan izango da. (D.N. 22-4-90).

Bestea, Euzko Jaurlaritza'k du asmoa; auek ez dute oraindik argi adierazi, zerbait beñepein, euzkalkietan egingo duten ala ez.

Euzkal egunkaria argitaratzea ona dala derizkiogu, baiña guzia batuan egitea ez zaigu ain ondo iruditzen.

Ontaz, gure Elkartea'k, Deia eta Dia io Vasco'k "Cartas al Director" atalera, maiz bialtzen ditu idazkiak, egunkari auetan, gutxienez, o i batzuek euzkalkietan idatziak izan ditezen.

Laister, ekintza au Diario de Navarra, Navarra hoy, eta Correo Español'en ere egiteko asmoan gera.

Euzkalkietan o i batzuek eskatuz gaiñera, egunkari auen eraileai, euzkera, e derakadaz garbitu dezatela ere eskatzen diegu. Oraingo bidetik EUZKERA galdu egingo bai degu.

Donosti ta nunaiko bazkideok, iñoiz gu ekin, edozein gaietzaz itz egin nai ba'dezute, pozik izango degu elkar-izketa, bai u utizkiñez edo elkar ikusiz. Nolanahi, au ez 287130 u utizkiñera deitu.

Aitatutako aldizkaria i bu uz, zuen iritzia jakin nai

genuke eta ausartzen ba'zerate, gai ontaz izpa ingietara idazkiak biali eta guri auen be idatzia. (copia)

Bazkide eta EUZKERA JATO AREN alde zeraten guzioi, zuen lankidetasuna eskatzen dizuegu, guztiok elka ekin, gure asmoak au era eramane aal izan ditzaun. Ona emen gure asmoak:

"Egunkaria So tzen " taldekoak argitaratuko duten euzkal egunkasian euzkalkiak e e sartzeko aalegiña egitea, erderadak kenduta, noski; euskal itzak, be iak bear di anean, bere (euzkeraren) sustraitik atereaz eta bere itzak ditunean... ze esanik ez.

"Escuela de Idiomas" dalakoan, azterketetan bakioitzak bere euzkalkia aurkeztu aal izatea.

Ego-Euzkadi'n, bein betikoz, H kentzea.

"E i Euzkera Eguna" ospatzea. Au, Euzkadi'n diran EUZKARA JATO AREN aldeko E akundeak eratu bear izango luteke.

Zuen iritziak azalduaz, idatzi edo deitu eiguzute, a en. Gure iritzien aldeko bu uka ja aitzeko inda a emango bai digu onek.

Bukatzeko, "Egunkaria Sortzen" taldekoak ateratzeko asmoa duten egunkaria argitaratzeko diru laguntzarik ez emateko eskatzen dizuegu. Ez gaitzabela atzipetu (engañar), argi bai da len zer gertatu zitzaigun.

IPUIN-SARIKETA

(BILBOA'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guttietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

—Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euzkalkia erabili az idatziak izan bearke dabe eta idazkera, EUSKERAZAINTZA k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

—Ipuiñak asmaurikoak edo eman batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2.', eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

—Sariak lau izango dira:

1' 40.000 pezeta

2' 30.000 pezeta

P 20.000 pezeta

4.' 10.000 pezeta

—Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

ELEIZEA

Eleiza ondo antolatutako ta zuzendutako gudaroste da. Aita Santua da bere len-buru, Gotzañak eta apaizak eta diakonoak urrengo. Ordenak be sartu daitekez eleiz-lan onuratsu onetan apaizen lagunkide antzu. Bai pralleak, bai monjak. Laguntza andia damotso Eleizan Ordenak. Ara.

ORDENAK ELEIZAN

Ordenak Eleiza beraren aldikoak dira. Kristau ^{erlijijioa} sortu ta laster agertzen dira. Zabaldu be beingoan zabaldu ziran mundu-zear uri andi ta erri txikien jabe egiñik. Batzuk ekintza, beste batzuk otoitza, baiña danak erriaren ona bakarrik billatu eben. Erriak ondo ta pozarren artu ebazan eta bere ateak zabaldu ainbat tokietan.

Izan dira zoritxarrez euren aurka lege anker-zuzengeak emon dabezenak; euren mugetatik jaurti dabezenak be bai. Erriak baiña euren alde jokatu eban beti.

Erriak laster ikusi eban oso onuratsua izango zala eurentzat pralle ta monjen lana eginkizun guztietan, bai irakaspenetan, bai gexotegietan eta bai zuzentasun-gaietan.

Ordena askon bizitza motela daroe gaur; au be autortu egin bear da; beste batzuk baiña iñoiz baiño indartsuago ta mardulago agertzen dira. Ez da itz gitxi tan esatekoa Ordenak bereizki mixiñoalurraldeetan egin daben lana. Kultura- gaietan be punterengo agertu izan dira. Asko bizitza-ixil-eskutua daroen Ordenen aurka agertu izan dira. Katolikoen artean be gitxi ez. Gizartea en alde ta onerako ezer ez dagiela diño askok; euren lanik ez dala ikusten. Otoitzari ta graziazko bizitzari indarra ukatzea da au. Ordenak onik asko egin deutsebai gizarteari, bai Eleizari. Munduo osoko edestiak argi erakusten dau au. Zoriontsuak bere mugabarruan Ordenak daukezan erriak. Eta Euzkadik asko ta danetarikoak daukaz.

ORDENAK ETA BATZARRA

Batzarra asko ta sakonki mintzatu zan Ordenai buruz. Mundu-zaleen artean eze katoliko on-zintzo artean be okerreko iritxia dago Ordenaz. Batzarra Ordenen alde agertu da. Bere erabagi ta erakutsiak gogorazi dagiguzan laburki.

BARRIZTE EGOKIA EGITEKO ONARRIAK

Lekaidego-barriztea egiteko lenengo bere lenengo sortze-egunetara jo bear dala diño Batzarrak eta gero

ORDENAK

GOIRIA

gaurkotasuna ezarri. Darraien oiñarriak jarten dauz Espiritu Santua laguntzagaz eta Eleizaren zuzenbidez barriztea egiteko.

1. Lekaidego-bizitzaren asmoa Ebanjelioak diñoenez Kristori jarraitzea dan ezkerro, auxe izan bear da Ordena guztien araudia be.

2. Eleizaren onerako da Ordena bakoitzak bere nortasuna eukitea. Beraz sortu ebenen pentsaera, gogo ta elburua ezagutu ta zaindu bear da; bardin abitzak eta Ordena bakoitzaren mamia dan.

3. Ordena guztiak Eleizaren bizitza bizi begie ta bereak lez euki ta gogoz betetzen arduratu ta alegindu bere asmoak, adibidez: bibliari, liturjiari, dogmari, eku-menismoari, misiolaritziari ta gizarte-auziari buruz.

4. Gizonen eta aldien izaera ezagutu-erazi begie Ordenak bertakoen artean. Orobat Eleizaren premiñak; sinismen-argiz gaurko mundua epaituta ta arima-zaletasunez bero eginda, gizonai geiago ta geiago lagundu al'izateko.

5. Lekaidego-bizitzaren elburua ebanjelioaren aolkuen bitartez Kristori jarraitzea ta jainkoagaz bat egitea izanik, ondoren oneik ez dira iritxiko uste izan bear naizta gaurko premiñen eta ezbearren aldetik jarri, barriztea barrukoa, gogozkoa ezpa'da.

BARRIZTEA NORTZUK EGIN

Barriztea danak, Ordenako guztiak egin bear dabe, bestela ez da osoa, ez da onurakorra izango. Nagusiak eta batez be Batzar Nagusian batutakoak esan bear dabe barriztea zelan egin. Aita Santuaren edo bertako Gotzaña en oniritxia bearko dau.

ORDENA EZBARDIÑAK

Bizi-era ezbardiñetako Ordenak dira Eleizan. Bakoi-tzak bere elburua dauko, bere nortasuna. Ordena guztiak —diño Batzarrak— gauza batzuk bardin euki bear dabez; bakoitzaren santutasuna ta Jainkoaren eta gizona en serbitsua billatu bear dabez. Ordena batzuk otoitz-bizitza dagie; bakarta.... ixiltasunean bizi dirapenitentzi egiñik.

Beste batzuk apostolutza dauke elburu. Beste batzuk mixiolaritza. Danak batera bizi dira nagusi baten menpean. Ordena guztiak barriztu ta gaurkotu dira Batzarren aginduz.

Batzarrak danak aupatu ta goraldu ebazan Eleizarantzat danak baitira bear ezko ta beraz maitagarri.

Euzkadi Ordenen seaska izan da beti. Mundu osoan lenengo maillan eta punterengo agertzen dala esango neuke. Prantzia, Holanda ta Beljikaren maillan jarriko neuke gure Aberria.

Zenbat on eta laguntza ekarri izan dautsoen Ordenak bere erriari. Bai pralleak eta bai monjak mundu oso-zear zabaldua misioalanean kultura egiten. Eta Euzkalean bertan bai lan ederra. Apaizaren ondoan erlijioari eutsiten, sinismena zabaltzen. Kristoren e rei-

ñuaren azia erein eta zabaltzen. Erriaren oiturak eta eskubideak jagon-erazten zintzoki ta leial jokatu izan dabe. Zenbat ikastetxe jaso dabezan erriko gaztediaren onerako, ez uri andietan bakarrik baita erri txiki-baztertueta be. Illunpe ta kezka-egunetan arnasa ta argia ta adorea eroan izan dabez beti euren anai-arrebekana. Askok eta askok jaso izan dabe sarri euren abitsa, euren deadarra kanpoko inda rak erriaren aurka jarri izan diranean naizta aserreak eta jazarpenak euren kanatu. Zorionsua Euzkadi onelako Ordena leiel-prestua dauazan bitartean.

BIDEKO IPUINAK

Ipuin-liburu ederrenetarikoa benetan gure Zubiri'tar Iñaki'k bizkaieraz agertu dauana. Ogei ta zortzi ipuin zoragarrik osotzen dabe eta nik poztasun osoagaz birritan i akurri dot. Aspertzeke edonork irakurri leike eta egilleari barbarka darion irudimen zoragarriaz gozatu. Orixe da, ain zuzen, niri jazo jatana.

Biga ren, bizkaiatarrentzat eredu bikaiña dogu. Gure euskalkia, batek baiño geiagok ukatu arren, ia lur jota daurkigu.

Nire euske azko ogei ta iru urte inguruko irakaslegotzan gitxik euskatu oi dauste bizkaierazko, zein alkarizketan zein klaseetan, jardunbidea.

Askok be askok "batua" soillik bear-izanez edo moda danez, orregaz euskal-agiriren bat lortzeko asmoz izan ezik. Alan eta be, geienok, udaroan erreztasun apur bat jadesteko, baserririk baserri joan bearrezko ereti premiñetan dakusguz eta pozik orreitariko euskal-saioak Bizkaialdean jadetsi ezkeru.

Egillearen euskerea garbizalea dager, baiña ulerterreza, ziurkiro. Bertako naiz atzerriko, ots, edonongo ele ti liburuetan nortasun bereziaz agertzeko duin dana.

Joskeran, nire aburuz, noizean bein, barri-zalea dirudi.

Ez noa luzatzera, batik bat, labur eta ederki Olazar'tar Martin'ek liburuan itzaurrean emon dauskun bere zentzundun eritxia ikustatu ondoren.

Amaitzeko, bizkaiereak beti izan ditu itz-lauan eredu bikaiñak. Zubiri'tar Iñaki'k olerkizkoa alderatuz itz-lauz "zein elebe iz zein ipuiñez" jarraibide egokia damotso izkuntza oneri.

I akurri egizue mesedez aulako liburu jaukal miresgarria. Egiz, ez za eela damutuko.

ARREGI'tar JOSU'k

JAIETAN

Gizonak ez dau, abere lez, beera begira bizi bear. Orretan dago. Eta barrua askotan miñez daroan ezker, jaiak, jolasak, olgetak asmatu ditu, barru garratzasun ori uxatu nairik. Lortu ete dau beti? Nik ezetz uste. Leen baiizen triste etxeratu bait da, olako jaialdi baten ondoren.

Dana dalakoa ni, joan dan irailaren 22'an Nafarroa-ko erri dotore Karkaztulu'n izan nintzan, zapatuz, Garde'tar Markelin ango seme zanaren omenezko illeta eguna ospatzen. Apaiz au (1925-10-2'an an jaio ta 1990-V-6'an Iruña'n illa) Jainko-zale ona ta euskaltzale fiña zalarik, merezi eban omenaldi bat, eta orrela egin geuntson aren adiskide min eta euskaltzale mordo batek, lenengo eleizan eta ondoren jatetxean. Garde'ren meza-barriko ikur-itzak: "Egiak askatuko zaitu". Gu be, danok, aren gogoari zintzo jarraitzeko asmoz, abiatu giñan bakotxa bere etxerantz.

Ni illuntzerako, zortzirak baiño leen, Markiña'n nengoan. Urrengo egunean, igandez, Jaia zan Mibe'n (Meabe), San Kosme eta Damian, anai osagille santuen jaia, urtez urte, nik be meza emon eta itzaldia egiñez, ainbat urtetan ospatu dodan jaia.

Geienetan amabietan izan oi da mezea. Ni an nintzan orduko. Mibe, Markiña'tik kilometro bira lez aurkitzen da; Igotz-mendi, Urregarai edo Santa Eufemi gaiñetik begiratu ezker, sortaldera lez dagoan auzune au zoragarria dozu. Ni txiki-txiki nintzala ez egoan, gaur lako kotxe biderik, bee-aldera jatsiz erreka ondolik joian burdi-bidea baiño. Gaur bide zabala daukazu atxex-atx edegia, Txaraka-etxe ondolik Lekeoiz barrena Aulestiraiño doana; Santa Eufemi'ra, bereillez be bai, Lekoiz'en artzen da bidea eskumatik.

Gaiñetxo atsegiñean jarria dago Mibe, Oiz, Iruzu-bieta, Urko, Kalamu, Iturreta, Etxebarria, Markiña ta Xemein-gaiñeko mendiak, Gabaro aldeak eta arrobiak... an eta emen inguruan ditula. Leku eguzkitsua; osasunerako ona. Ez dakit zenbat baserri diran, baiña naikoa. Lenago solo, landa, mendi ta txaratik bizi ziran mibetarrak; gaur kortak urri samar, eta txarak piñuz ta arrobiz, kanteraz gaiñezka: gizona aurrera bai doa. Bideak eta etxeak, garbi ta dotore daukiez; batzuk be dituzu lora zale amorratuak, eta leio, balkoi, etaurre ta baratz txikiak, danak loratan daukiez.

Mibe'ko atxurdin edo marmola ondo ikusia da mundu guztian. Arri bikaiñeko kantera ugari ikusten dira. Norenak? Mibetarrak!, itxartu zeuok be. Etxekoa, etxe-koak zaindu ta maneatu ta erabiltea; guna ataratea, nunbait. Kanpokoak, guna atera bai, baiña gauzak eta bazterrak lorrindu egin daroaz geienetan. Ez Mibetxarako auntzak bakarrik, bertako arri-mokorrak be zeu-nak dozuez. Begiak ikusteko dira.

Gaur kotxe asko dabil, aundi ta txiki, bazter orreita-tik zear; eta motoak ez gitxi, tor-tor. Lenago, ni mutiko nintzala, etzan olakorik, bakartadea zan, oso egokia. Eta bakartade-zale ziranen bizileku. Eta zarrak diñoenez (nik sarri entzun dot), an joandako gizaldian, karlatar gerra ostean edo, padar bat, bakar-zale bat bizi izan zan, aldikada luze samarrean antza, ortxe Mibe gaiñetxoan, Urregarai azpian, txarako koba-zulo batean giza-seme eremutar bat, bene-benetako Jainko-zelea, otoitz eta otoitz, goi-bizitzeari emona. Eskean eskuratzen eban zer jana.

Lenago ni markiñarra nintzala esaten eben. Bai eta ez. Nire aita zana, gizon langille ta zintzoa, ementxe Mibe'n munduratu zan, Onaindi-baserrian. Eta ni be, mutiko nintzala, lenengo oiñez beeko erre kondoko bide-tik, eta gero gaurko bide zabal erosoz, errege-bidez, ona ekarten ninduan, bertoko jaietan batez be. Eta geroago, praille egin eta mezakotu nintzanean, urte luzeetan dei egin daustie mezea esan eta Santuen itzaldia egitera. Eta lezak lezari lez, odolak be odolari dei egiten dautso ta... ni pozez beterik etorri oi naz urtero. Komentuan sarri esaten dauste: "Gogait eginda daukazuz onezker". Eta nik: "Eurak dira errudun"; eurak dei egiñik noa urtero". Ia auzune guztia senide dot, eta ni mezea esan eta neure odolekoak, urtean bein, agurtutera joaten naz.

Zer jai geunkan itandu nebanean, paper luze-zabal oria ekarri eusten: aurtengo egitaraua neban.

Onela iñoan: "Meabe. San Kosme ta San Damian Jaiak. 1990, Iraila, 23. Goizeko 11'ketan, Tabernia zabaldu; 12'etan, Meza nagusi, eta ondoren saldea guztientzat; eguardiko 1'etan, txinga (txirringola bateko 50 kilo ditun pisu bai esku bakotxean) eroate-txapelketa; sariak, 1.º, 5.000 pzta., 2'goa, 3.000, eta 3'goa, 2.000 pzta. Eguer-

diko 1'05: paella ta tortilla txapelketa; eguerdiko 2,15'etan, paella ta tortilla-aurkezpena ta sariak; jai batzordeak jarten dau ikatza dubarik.

Sendietan bazkari ugari gozoa ospatu ondoren, arratsaldeko bostetan, mus txapelketa (3 jokora); sari ederrak, lenengoari 10.000 pezeta ta trofeoa, bigarrenari 8.000 ta trofeoa, irugarrenari 6.000 ta laugarrenari 4.000. Izena emotea, 1.000 pezeta bikotxarena. Briska txapelketa (5 jokora), arratsaldeko 5,10'ean; sari politak, lenengoari 5.000 pezeta ta trofeoa, bigarrenari 3.000 pezeta, irugarrenari 2.000 ta laugarrenari txanpan botella bi; izena emotea, 500 pezeta bikotxa; mus eta briskarako izen emoteak, 4,30'ean amaituko dira.

Arratsaldeko 5,15'ean, umientzako jolasak: Zakulasterketa, sagar arrapatzea, zinta ariñeketa ta abar. 6,30'ean, bertsolariak —Mugartegi, Lazkao txiki ta

Goio^{ren} ekiñaldi luze, eder, entzungarria; antxiña lez gaur be, gure bertsolaririak jardunik sakon, bizi ta euskaldunenak bazkal ostean tabernetan egiten dabez: buruak eta miñak ba dabe zer ikusia gantzarekin. Zutunik egonda be, entzulerik etzan nekatu. Ondo txalotuak izan ziran zirtolariak. Sariak emondakoan be, irabazleai poza emotearren, eta Goio ta Aintzane bikotea en trikiti jarduna bukatutakoan, 9,30'ean amaia emon jakon jaiari Mugartegi^{ren} ipuin irigarri batzukin.

Igande orretan, goizetik asita, euria egia eban polito Bizkaia'n, Santa Eufemi'n (bigarren eguna emen) eta Mibe'n beintzat; Mibe'n zirimir antzekoa, nik uste, egun osoan. Meza-ostean muzin samar ziran taberne ruak, jente asko ta giro badaezpadakoa, jeneroa saltzerako. Eta egin bear ziran jolasak aurrera aterateko. Au sarri samar gertatu oi jaku, irail-azkena euritsua izaten bai da. Eta olakoetan sortu ta jagi oi dira pentsamentu

ta asmorik erabagitsuenak; igandeko euriak be ekarri eban zerbait mibetarren buru-biotzetara.

Leku ederrean daukagu eleizatxoa, bertako santu biai eskiñitakoa, antxiñakoak jaso ta ondorengoak ardu-ra aundiz zaindu ta jagona. Ermita aurrean, leku bikaiña da-ta, edate, jolas eta jai nagusienak; baiña euria danean, ez dago girorik. Auxe izan zan, beraz, pentsatu zana: ermita aurreko zelaitxoan, aterpe polit bat jaso. Ez litzateke kostu aundiakoa izango; or dago, naikoa luze-zabala, eta ortxe blokezko sei pilar gainean aterpean egin, gaur modan dagozan teillatu apaiñez: orixe naikoa litzateke, euria egiñik be, San Kosme ta Damian jaia polito eroateko. Errez samarra da gaur, guztiok borondate onez, onako gauzak aurrera eroatea. Ia zerbait egiten dogun datorren urterako.

Gaur, urtez urte doaz gure bazterrak, gero ta dotore, eroso ta ikusgarriago egiñaz. Baita Markiñaldia be. Leengo zarrak maite eban, benetan maite be, euren etxea, euren lurra, euren zana; zergaitik guk ez? Ni naikoa ibillia naz ara ta ona. Zelako diferentzia dagoan alde batetik bestera. Euskal erri onetan berton alde aundia dago Iparraldetik Egoaldera. Mibe'n ba-da etxe bat dana loraz jantzia, atze-eta-aurre, ezker-eskuma, goi ta bee apain be apain, begien betegarri. Ara doanak eta edertasun a ikuskatu, berez-berez diño: "Arima eder bat bizi da emen".

Gure lurraldea oso ederra da, mendi, baso, erreka, zugatz, egazti, dana... Emakume ta gizasemeok, Ederra bera dan Jainkoak egiñak gara. Juan Gurutzekok diñoanez, ibilliz bakarrik eder jantzirik itxi eban guztia. Gaitazan gu be eder-zale ta eder-egille. Mibe toki atsegiña ta ederra dozu; ez daigun guk ezaindu.

AITA ONAINDIA

OILLAR "DROGOSA" (AURKEZPENA)

Liburu barri bat idatzi dau Zubiri'tar Iñaki idazleak. Elebarria da oraingo au. Eta Euskalerrian liburu bat argitaratzen danean, euskaldunak jai egin bear genduke, jai egin eta irakurteko gogo bizkortu, gure idazle lana alperrekoa izan ez daiten.

Irakurgarria da Iñaki'ren elebarri au.

Lenengo zortzi orrialdetan elebarriari sarrera egiten dautso idazleak: Ederto asmatua da sarrera au, Goikoa landa ko abade eliztigillea agurtzeko erri aretara osterea eginda eta abade oneri oillar ospetsu baten barriak eskatzen jakozala.

Gero oillarrak berak idatzitako agiri bat oiñarri dala, kondaira zuzena da elebarria.

Elebarriaren edeslaria oillarra bera da, sarrera amaitu ezkerro, eta iñoz beronen autuak luzeak diralako, edeslaria aitzuta geratzen da, baiña laster gogoratzen dau irakurleak, oillarrak esandakoa dala dana.

Elebarriaren joanean, aldia zuzen doa, baiña sarrera inguruan ba-dira aspaldiko elebarrietan oitzen diran aldiaren atzerakuntza batzuk: Oillarra aundi eginda ikusi ondoren, bere kondaira azaltzeko txita zan aldira atzeratzen da.

Elebarri osoa "Prosopopeia" edo norkigintzaren motara sartu bear da: ulertzen dana idazten daki oillarrak, baiña ez itz egiten.

Oillar ori gaiñera, sarritan, irakasle biurtzen da eta orretan alegien irakaspena dirudi, baiña irakaskintza ez da larregi agertzen liburuan; une batzutan eutanasia txartzat agertzen danean, esker txarra alboratu bear dala esaten danean edo liburuaren azkenerantza ume-gaiak iltea oillarrak berak be zorakeritzat artzen dauanean.

Gero oillarrak bere edestia esaten dauanean, etxerik etxe dabil, Goikolanda'ko abadea lenengoa dala, beste askori laguntzen: Errementariari, Aldekone'n, itsu baten etxean, artzain baten txakur zaarraren orde, Ibargane auzoan.

Edestia makobil antzera itxiten da, asi dan lekuan amaitzeko, Goikolanda'ko abadearen etxean bere gomutakiak idazten.

Elebarriaren tokia zeaztutea ez da gauza erraza, erririk erri dabil, batzutan Goikolanda inguruan, beste urrin, baiña Goikolanda bera be non dagoan iñoz iragarten ez dala.

Liburuaren bitarte batzutan idazleak asmauriko bertsoak be agertzen dira, abesti antzera. Ba-dakigu gure idazle au olerkigintzan ona dana.

Oilloai buruz baserrietan izan diran oiturak ondo agertzen dira: Janariak billatzen, jatekoa banatzen, arrautzak egiteko sasoiak, eta abar.

Eragiña edo ritmoa ondo daroa idazleak, toki edestiak, esaterako artzaiñen arteko leiaketa, naikoa luzeak izan arren.

Trebebideari begiratu ezkerro, elebarri onek "GAL-DU" txakurraren antza ba-dauko, an txakurra edeslari dan antzera, emen oillarra dalako, baiña elebarria oso ezbardia da.

Gaurko arazoak agertzen dira liburuan, baiña garratasun barik, gozotasuna ugari dala.

Irakurgai egokia dozu, irakurle, liburu eder au. Ordu atsegin batzuk igaroteko lagun izango dozu.

OLAZAR'TAR MARTIN

ISRAEL

Erriak sortu ziran aldi aretan, gizonak artzaintza osoan alboratu barik lurgintza asmau eban aldian, munduko erri guztien artean, bere Erria sortu eban Jaungoikoak: Benetako Jaungoiko bakarraren sinistea eta eskiñita egoan Salbatzaillearen itxaropena aurrera eroango ebazan erria.

Erri arrigarri onek, gizaldien joanean, bein bere buruaren jabe eta bein atzerrien menpe, bere zeregiña bete eban eta antxe, erri-barruan, sortu, bizi, il eta berbirtu zan gure Salbatzaillea.

Baiña erri onek arazo bereziak sortu dauz beti gizonen kondaira barruan eta gaur be sortzen dauz, aspaldiko izparringietan irakurri daikegun lez.

Kristo'ren jaiotzatik 70n. urtean, Erroma 'tarrak Jerusalem apurtu eta Juda'tarrak euren lurraldetik iges egin bearra izan eban. Toki guztietan, atzeritarrak ziralako eta euren jokabideak bereziak ziralako, berezituak edo diskriminatuak izan ziran, aurpegi txarraz begiratuak, eta euren aurka sortutako jasarpen bildurgarriak artu bearra izan eban.

1986'an, atzerrietan bereizkuntza ikaragarriak eroan ondoren, Errusia'n, Austria'n eta beste leku askotan ainbeste il izan ondoren, Teodoro Herzl'ek izparlariak, diñoanez, antisemitismoaren azkenengo urtenbidea, euren lurra eskuratu eta laterria sortzea izan zan. Orixe da sionismoaren burubidea, elburu ori lortzeko Palestina'ko lurra aukeratu ondoren. Berau izango`zan eurentzat "gizarte-bako lurra" eta "lurbako gizartea".

Euren amets ori egi biurtzeko, Juda'tarrak euren lurraldera biurtu ziran eta an auzoak, etxaldea, "Kibutz" barruetan solo aundiak eta ederrak landu ebezan.

Gizarte-bizitza eratzeke bide lez, Marx'en arauai jarraituz, gizarte-zaletasuna edo sozialismoa aukeratu eban. Orrek esan nai dau, lurraren jabea laterria dala eta eurak urtero mozkiña ordaindu bear dautsoela Laterriari. Amets ori betetzeko an bizi ziran palestindarrak andik kanpobra bialdu bear ziran, lenengo euren lurak erositia.

Gero, urte gitxi igaro-ondoren, andik urten ziran palestindar orreik euren aurka gudaketan asiko dira, baiña Juda'tarrak geroago ta ugariago etorri ziran, nazitarren gudaketa amaitu ondoren asita batez be.

Inglaterrak, arabiarren eskariari jaramon egiñik, alegiña egin eban Juda'tarren etorketak galerazoteko, bai-

ña azkenean, 1948an Laterri Batuen Alkarteak lurra zati bi egitea erabagi eban, baiña palestindarrak ori ez eban onartu lurralderik erdi iztea, eta Juda'tarrak gogor-keriz areik bildurtzen asi ziran.

1948'an, Ben Gurion'ek bere aldetik, Israel Laterriaren jabetasuna agertu eta zabaldu eban. Inguruko erriak eta euren gudarosteak eraso egin eta lurraldera sartu nai izan eban, batez be Jordan-inguruko errietara ta Gaza'ra.

Suez'eko kanala, ortik India'rako bidea, eta Persitarren ur-kolko inguruan diran arorio-iturriak dira erdi-aldeko Sortaldearen onurak eta inguru orretan dago Israel'erri barriaren arazoa eta munduko beste laterri batzuk inguru orretara sartu-gurea izatea, esaterako Kanalean Ingalterra'k ogeigarren gizaldi guztian arduralaritza eukitea.

1914-1918 urteetako gudaldian Baulfur Itzarmenak Juda'tarrai agintza egin eutsen Palestina euren aberri jatorra izango zala. Baiña eskintza ori aurrez aurre joian arabiarren eta eurai egin jaken askatasunaren agintzearen aurka. 1920 an Laterrien Alkargoak Palestina zuzentzeko agindua emon eutsen Ingalterra'ri.

Israel Laterri barria saltaldearekin alkargora sartu zan eta bitartean euren auzoko ziran arabiarrek Sobiet'tarren Batasunetik artzen eban laguntza. Gaur, Hussein -en jokabide okerra dala-ta Sobiet'tarrak arabiarren aurka jarri dira, sartaldeko laterrien ondoan eta arabiarrek eurak be euren artean zatituta aurkitzen dira.

1956'an Ingalterra'k Israel zirikatu eban Egipto'ren aurka eraso-aldia egiteko eta bere babespean artu eban Sobiet'tarren Batasunetik izan leiteken edozein aurkako jokabide.

Oraintsu izan dira Palestindarren eriotzak Erosten Orma ospetsuaren inguruan, eta laterri Batuak aurka jarri dira.

Israel'darren arazoa gaur be bizi-bizi dago ba, eta ez, bear ba'da, euren elburua beti izan dan Jaungoiko bakarra gurtzea eta Salbatzaillea itxarotea. Gaurko Juda'tar asko eta asko sinistebakoak dira eta Kibutz'ak eurak be ez dauke fede-giroan ezelako ardurarik eta ez sinagogarik be.

EGILUZE'K

IÑAKI PERURENA

Gure euskal arri jasotzaillerik aundiena, apal baizen indartsua, urte batzuk dirala EUZKADI aldizkarian euskal-idazle lez nengoala ezagutu neban.

Urte areitan EUZKADI'k sari-banatzeko jai-aldiak batera, gertatu eban afari sonatu baten batu ginduzan eta bertan euskal kirol eta kutsuzko arloetan nabarmentsuai esku-opari ederrenetarikoak banatzen eutsezan. Ospakizuna, orduan beintzat ARANTZAZU izeneko jatetxe-katekoak Bilbao'n dauken ostatu dotore ta bikaiñean gertatu zan. Leku alaitsua benetan.

Ariño jaun gazteak, abeslari jator eta onenatarikoa danez, berein abesti zoragarrigaz gau gogoangarria emon euskun. Txalo zartadak mordoka entzun ziran bere abots lilluragarria entzun ondoren.

Afari-aurrean, eta goazen Iñaki Perurenari buruz berba egitera, agurra euskeraz egin ondoren eta alkar-izketa labor eta biotz-ukigarri bat eginda, biok aurrez aurre izan gintzazan.

Ez gendun euskalki bardiña erabilten, biok euskaldun zarrak izan arren. Napar-goialdeko euskeraz ^{eresituz} berak, eta gurasoak irakatsiriko bizkaieraz nik. Nire aita aspaldi baten AGUR asterokoan idatzi neban lez, gaztetan Urbia'ko zelaietan artzain izandakoa zan. Bere bizi-aldian sarritan Arantzazu'tik Urbia'ra ta Aitzgorri'ra joaten giñan. Arrola baserrian jaioa zan eta bizkaieraz egiten eban, Oñati'ko bizilagunak lez.

Beti diñodan lez, euskerea bere sustraietan betidanik bat da. Ez dago ba ziorik, ez eta iñondiko errazoirik, gure indar bereziz apainduriko euskal-zugatzean kimu ez-ezagun eta barrizaleak, onak ez izatekotan, guztioi indar biziak jartzeko. Ez bein.

Ariari jarraibide emonaz, Perurena'k eta biok, ARANTZAZU jatetxe ospetsuan gau artan biotzak pil-pil bateratsuan geunkazala, sari eta goraberai buruz itz egin gendun.

Pozik egoan. Ez dot arrezkero ikusi. Oraintsuago arri jasotze barriak, 305 k'ko arri astunak berebiziz berak laztan-giro beretzat soillik gertaturikoak birritan jaso zituala pozarren jakin neban.

Eginkizun onek, gure artean ospea emon dautso eta berak diñoanez, ondo be ondo dago. Alan eta guzti be Paris'en 301 k'ko arria leporatu ebanean arrakasta aun-

diagoa izan eban. Gaur egun, zabalkundea da bearrezkoa eta Paris'en Guinness'en arduradunak egozan bertan. Or dago alde.

Apala dogu gure Perurena. Egunero diardu bere arri jasotze iñarkunetan. Bere gogoarentzat eta bere soñia entzat kirol osasuntsua benetan.

Laster, berak diñoanez, bere elburua iradu barik ori bai, 306 kiloko arria jasotea izango da... Geroko baten, indarrak gitxitzen doazen araberan, bardin beeratzean be jokatzeke, astiro ta apurka apurka...

Eguneroko bere bizitzan, Leiza'n, bere sendiaren aragitegian lanean daragoio. Alan eta guzti be, zaletasun edo hobbi bizi-bizi bat dauko: Arriak jasotzea. Emendik jatoroko, ain zuzen, bere izenak ludian zear lorturiko ospea.

Nor izan zan, baiña, bere gurasoak nai ez ebela, zaletasun orren sortzaille? Bere aitita maitea. Txikitatik igitu eban artara eta orrez gain bertso-saillak egitera be bultzatu eban. Orregaitik dago bere aitagaz ain maiteminduta.

Perurena'k, etorriaren edo goi-argia en menpean dagoanean, eta ori sarritan gertatzen jako, guztitariko bertso txalogarriak zertu oi ditu: alaiak, itunak, gizadiari buruzkoak eta abar... Ona emen jarraian bere bertso zaletasunaren agiritxu bat:

Eguzkia bizia da,
berak adierazten dau
bere gozotasunarekin,
otsaillaren erdian,
zeiñen gozoa dan eguzkia,
agertzen danean.
Intzak kendu, otzak urtu,
itzalak baztertu, argiaz garbitu,
txoriak kantari eta ardi botatxarriak
tximiniko keiak itzaltzen dituzte.
Eguzki gozoa, epela, atsegiña,
negua igei, odolak berritu,
urte bat gutxiago bizitza ontarako
guretzat eguzkia...

Baserritar zurra benetan gure Iñaki Perurena.

ARREGI'tar JOSU'k

BEGOÑA'KO ANDRA MARI



Andra Maria'ren irudiak asko eta ederFak daukaguz Bizkaia'n, eta aldi askotakoak be bai, baiña gaurko lan onetan Begoña'ko Amaren irudia dan lakoak edo antze-koak gogoratuko doguz.

Bizkaian asko dira antzeko irudiak, amairugarren gizaldi-ingurukoak. Ona emen irudi onein ezaugarriak: Andra Maria jesarrita agertzen da, aurrera begira, eta zarrenak barretxurik be ez daukela. Geroagokoak, ostera, Andra Maria'ren aurpegian barretxua agertzen dabe. Begoña'koak be ba'dauka barretxu ori eta ortik igarri geinke ez dala zarrenetarikoa.

Irudiak eskuan lore bat edo frutu bat erakusten dau. Sarritan ez da jakiten zein frutu edo lore dan. Geroago, lore edo frutu ori kendu eta eskuan erregin-makilla edo argizaia ezarri jako eta ori ez da onartzeko gauzea.

Jantzietan ez dau irudiak nasterik izaten, tolestura zuzenak eta gitxi baiño ez. Toles orreik nastatzea beranduagokoa izatearen ezaugarria da. Zutunik ikusten diran Andra Mariaren antxiñako irudiak be gotiku-tankerakoak

izan daitekez, batez be toles zuzenak eta gitxi nastatuak ba'daukez. Gero barroko-aldian datoz olako nas-teak, eta ugari.

Jesus umearen irudia, irudirik zarrenetan, barretxu barik eta aurrera begira agertzen da, amairugarren gizaldi inguruan, eta geroagoko irudietan Jesus umea Amaren aurpegira begira edo barretxuagaz ikusten dogu, esaterako Zeanuri'koan Irudi onetan umea liburu bate-gaz jolasten agiri da, Amari begira. Amalauagarren gizaldiaren azkenetakoa izan daiteke.

Begoña'ko Andra Maria'ren irudian, alde batetik ontasuna agertzen dauan barretxua agiri da, bai amagan eta bai umeagan, eta eskuan euki bear leuken lore edo igali orren ordez, erregin-makillea.

Baiña gure aurretikoak, Andra Maria'ri opariak egi-teagaitik edo, irudia jantzi ederrakaz estaldu eben.

Aspaldion sarriago agertzen da irudiaren edertasuna albortzen daben jantzi eder orreik kenduta. Eta orrelan irudi oso ederra eta erti-giro onekoa da.

Olan ikusi eben irudi au gure arbasoak antxiñatik.

Olantxe ikusten dogu guk be, noizean bein izan dituan aldakuntza batzuk gorabera, zurezko koroiairen ordez zidarrezkoa dauala eta eskoiko eskuan erregin-makillea ikusten jakola.

Jainkoaren Ama dogu bera. Gure arbasoak. ez eben ikusi gura izan zar-itxuran.

Gure bizitza ulertzen ba-daki ama onek. Bai, erdiaroko bizkaitarrik zakarrenak, eurak beti ibiltzen ziran alkarren zelatan, anai-arteon odola ixurteko prest, eta ainbeste burrukaz aspertuta, ezpatak odoletan, gorrotoa erielia, Begoña'ko eleizatxura etorten ziran. Edo barrua damuz erreta, euren Amaren aurrean belaunikatzen ziran or Artagan'ko gaintxuan, eta Erregiñatzat artuta euken amak euren bizitza gogorraren gaiñetik berba leunak egiten eutsezan, irribarrea, maitasunaz, bakera-ko berbak biotzera sartzeko gogoaz.

EGILUZE'k

IBARRA (Zidarrezko katillutxua)

Orixe da, bai, Orozko'ko ibarra: Zidarrezko katillutxua.

Olan iruditzen jat niri beintzat, bere etxe eder eta aundiak ikusten dodazenean: lenago be ederrak eta orain barriztauta askoz ederragoak, eta gaiñera Atxeta esaten jakon atx-gaiñean ezarrita dagoalako.

Idazti onen bidez agurtzen zaituet zintzoro, zeuen lan, alegin eta laguntzaz San Bartolome'ren parrokiko zabalunea ain polito ipiñi eta edertu dozuelako.

Ibarra'k eta bere parrokiko zelai-uneak berez dira lilluragarriak, zabaltasun aundirik izan ez arren be.

Sarritan burura ekarri edo gogoratu be egin barik igaroten jaku Ibarra'tik ikusi geinken izadi-ikuspegirik ederrenetarikoa. Urigoiti'ko atxa ikusterakoan, gure burura datoz aren egikeran izan ziran lur-sortze-aldiko zarak eta lur-ikarak billoi bat urteetan zear, uriola itzalgarririk, lur-dardarak, mendi-tontor izurgarriak, aldatze bildurgarriak eta olakoak.

Eta geroago, lurra biziteko egokia izatera eldu zanean, landarak eta piztiak jantzi eben ain oparo toki eder au, eta gizona en aldia eldu zanean, urteen joanean, erriaren irudimenak lamiña ta sorgiñen ipuiñak asmau eban barre eragiteko edo bildura sartzeko, eta arlo onetan Anboto'ko Andreari buruz esaten dana gogoratu bear: Urtero iru edo lau bidar Anboto'tik Gorbeia'ra eta Gorbeia'tik Anboto'ra aldatzen dala, bere sorgin-lagunakaz, euri-zaparrada, abasusa, arri-txingor eta zaratan artean.

Ibarra'ko etxe guztiak, ez da Atxetakoa orretan bakarra, barriztauta eta garbitula ikusten doguz, baita euren gelak, lo-tokiak naiz egotekoak, oraingo atsegin-gailluz apainduta.

Eta lekai-me-etxean egiten dan Barri Ona en arauzko bizitzea, gogorra baiña apostolu-lanez beterikoa, batez be eziera bereizia bear daben atzeratuai begiratzen jakela, zelan ez dogu aitatu?

Parrokiko eleizan irukoitxa deritxon erti-lan eder bat gogoratu bear dogu: Jesukristo gure Jaunaren bizitzea ederto, era zoragarrian, erakusten dausku. Eta eleizearen sabaia apaindu, orain-arte ka ez estalduta egon dana, ondo gordeta egon da sitsak jan ez dagian. Orregaitik, iru edo lau gizaldi euki arren, osorik aurkitzen da, eta gaur ondo zainduta.

Eta zer esan Ibarra'ko biztanleai buruz?

Geienak maitegarri eta toles-bakoak dirala.

Gaztedia, Bizkaikoa dalako fultbolez eta txirrindularitzaz zaletuta egon-bearrean, tamalgarriz ez doa bide orretatik. Alan be, beste erriko gazteak lez ez dira traketsak eta burubakoak.

Andrazkoak, jantzi ta zeregiñetan, oraingo girokoak dira.

Gizonak, indartsuak, bioztunak, ausartiak dira.

Ortik zear esaten dabe bala-bala, Ibarra'koak edo ez dakit nongoak, orain bederatzi urte, Santa Ageda-aurreko egunez, ardaoak eraginda edo, gogorkeriren bat egin ebela.

LETONA'k

|

LANIK-EZA

|

Lana da gizonaren eta emakumea en almenak aurre-ra ateraten dauzana eta lan barik dagozenak euren almenak lo-zorroan lez eukiten dabez. Ori izan leiteke gaur egun emakumeak lana eskatzeko dauken zioetari-ko bat.

Lana da mundutarrak alkartzen dauzan lokarria, izan be batzuk egiten daben lanaren ondorena beste batzuk bear dabe eta alderantziz, guztiok lana egiñaz alkar osotzen garala.

Lana da guztiok daukaguzan bear-izanak betetzeko bear dogun dirua en iturria, eta orregaitik lan-barik dagozenak bear-izanik larrietariko baten aurkitzen dira, euren bearkizunai erantzuteko erarik ez daukelako.

Orrelan ba, lanaren billa dabiltz gaur asko eta asko, batez be lenengo lana aurkitu nai daben gazteak.

Egia da, lanbako asko alperkeriak eraginda dagoz eta eskintzen jaken lana, diruaren truke izanda be ez dabe nai izaten, eta iñoz erantzun be bai, eskean ibillita geiago ateraten dabela lan eginda baiño.

Lanik-eza mundu guztian ikusten dan agerkari larria da, eta oraintsu izan dan Persia'ko itxas-kblko inguruan sortu dan larriune onen ondoren lez, len lanaren itxaropenean izan diran asko itxaropena galduta dagoz eta len berantza joan dan lanbakoen kopurua orain, zori txarrez gorantza doa.

Ardura berezia ta larriagoa da au Iruugarren Munduko laterrietan eta txiroen artean. Zori txarrez, munduko larri-uneetan txiroenak izaten dabez larrialdirik larrienak.

Lanik-ebak kalte asko eta aundiak dakaz: Lanbakoak berak be larri, estu eta artega ikusten dau bere burua eta orrek goibeltasun aundia dakartso; munduan diran aberastasunen eta urritasunen egoerak be ezbardintasun aundiagoa artzen dabe; sendietarako naste ekarten dauz; giza-aurrerapenak lortzeko diran erakundeetan be arin ikusten.dira urritasunaren ondorenak; olako egoeran dagozenak gizarteko euren zeregiñak bete barik, alboratu eta bertanbera izten dabez; arduragintzak, ordezkartitzak, alkargoetako lankidetasunak larri aur-

kitzen dira; jaurketarako ekintzak eta lagun-arteko bazkunak arazo aundiak izaten dabez ekonomia bideratzeko; bere sasoiari artu diran onerako ekintzak edo egin diran berba-emoteak ezin bete izaten dira. Arlo onetan maitasunaren legeak dauka zeregin aundigoa, alkartasunetz olako egoeran dagozenai laguntza emoteko eta al dan neurrian lan-leku barriak sortzeko, naizta ori be gauza erreza izan ez, ondorenak saltzeko be aukera gitxiago izaten dalako.

Guztiok dakigu arlo onetan Eleizeak egiten dauala lan aundi bat, baiña ezin eskiñi trebebidetako urtenbide argirik. Bere berbearen bidez, ekonomi-egimenaren edozein maillatan gogoratu bearko dau, olako gizarte arazoak ez dirala diruaz bakarrik konpontzekoak. Gizarte-irakatsiak emon leiz eta emon bear dauz, gizon bakoitxaren duintasuna gogoratzen dala.

Lan egitea Egilleagaz lankidetasuna izatea dala adierazten dau, eta gizaki guztiak daukela munduko ondasunetan kideko izateko eskubide bardiña, bear-izan larriak betetzeko beintzat.

Eleizea billa dabil, eziketean emoten ekiten dau, kristiñauak lanik-ezaren arazoa bideratu bearreko arazo larri lez ikusi dagien.

Ondasun-banatzearen arazo onetan eta txiroen egoerea larría izan zanean, beti izan ziran Eleizan, eta gaur be ba-dira, laguntza bereziak emoteko gogo aundia agertu daben gizonak, gogoratu esaterako, urte larrietan zelako eragiña izan eban Paul'eko Bixente santuak. Gaur be lan ederra egiten dabe berak orduan sortu ebazan erakunde gizarte-zaleak.

Zergak ordaintzen diranean eta Laterriak ondasunak banatzeko bideak artzen dauzanean, arazo au kontuan eukitea ekaten dau Eleizeak. Ondo dakigu zelako ondoren ona izan dauan Jaurlaritzak ezarri dauan gizarte-sariak.

EGILUZE'k

ZELAN LORTU

Bakea beti izan da munduan ondasun aundia, aundienetarikoa. Baiña iñoz baiño geiago gure aldi onetan, gudak daukezan ondorenak negargariagoak diralako eta aurrerapena bizkorra izanik, gudak ekarten dauan atzerakuntza aundia izaten dalako. Oraintxe esaterako salneurriak goratzea kentzeko bideetan izan gara eta orretarako itzarmenak izan dira langilleakaz eta baltzu-buruakaz eta gudaren zurrumurrua ta arorioaren salneurri-gorakadea sortu danen, asmo guztiak erdi-zapuztuta geratu dira.

Bakeraren egarria iñoz baiño aundiagoa da ba, eta gudaren arriskua be iñoz baiño aundiagoa eta albiste-bideen aldetik argi ta garbi azaldua.

Barri Onaren ikuspegitik begiratu ezker, berba gogoangarri oneik irakurten doguz: "Nire bakea damotsuet, baiña ez munduak emoten dauan lez". Bere bakea eskiñita, Jesus'ek ziurtasun au emoten dausku: Barruko bakea lortu leiken gauzea dala, zailtasun aundiak eta neke asko eskatzen ba'dauz be.

Zelan lortuko dogu samintasun, oiñaze, naigabe eta laztasun guztien gaiñetik sortzen dan bake ori? Geuk izan bear dogu bake-egilleak, bestei bakea eroan, emon, bakerako tresnak Jesus'ek berak eskintzen dauzanak dirala.

Afrika'ko idazle ezaguna dan Alan Paton'ek diñosku, Jaungoikoaren bakea lortzeko tresna izatea ez dala norberaren zeregiñetatik alde egitea, gizarteko arazo ta betebearrai begira egotea baiño: Gosea, txirotasuna, okerkeria, gogorkeria, urko-laguna norberaren onerako erabiltea, gudea- ta olakoak alboratzen dirala.

Ona emen Frantzisko deunaren otoitz ezagunetik artutako gogaketa batzuk:

Jauna, zure bakearen tresna egin nagizu.
Asarrea dagoan lekuan adiskidetasuna ezarri dagidala...

Beneditarra dan Ana Maria López amak beste au diño: Onetan egi sakon bi alkar indartzen dira: Ezagutzeko argia dago alde batetik, baiña bestetik bakea Jaungoikoagandik datorrela jakitea. Eta erabatez, ardurabakotasunean, dana Jaungoikoari itzi ezker, berak geuri eragiten dauskula orrelango bakea etorkizun ohea egiteko dala jakiñik.

"Irakiten nago gurari asko eta aundiakaz,
al dodan kalte guztia senarrari egiteko"

esaten eutson gogo-osagilleari, eta ori ezkontza-austea lortu nai ebalako. Aolku au bete egin zan eta aregandik alboratzeko gogoa kendu egin jakon: "Maitatzen dot neure senar maitekorra".

"Traiña dagoan lekuan, parkamena ezarri bear dogu".

Kristiñau guztiok ikasi bear dogu, Kristo'ren irakatsiari jarraituz, beti parkatzen eta biotzez parkatzen.

Sarritan aiztuten dogu Salbatzailleak esan euskun a: "Altarean zagozela, eskintza aurkezten dozunean, zure senideak zerbait zure aurka ba-daukala gogoratzen ba'dozu, antxe bertan itzi egizu zeure oparia eta zoaz lenago aregaz bakeak egitera, gero egingo dozu zeure eskintza".

Beraz, gure kristiñau gogoeta arteza ta ikasia auxe izan bear da: Parkamena eta alkarregazko bakeak egitea bear-bearrekoa dan mailla beratan dagozela.

LETONA'k



LOIOLA'KO IÑIGOREN LORATXOAK

Iñigo pekataria.

Loiola'tik 15 urtekin urten, eta 11 urte egin ebazan Iñigo'k Arebalo'ko jauregian. Noz eta zelan asi zan bizitzako moral bidean irrist egiten?

Zartzaroan jesulagundiko Gonzales da Kamara portugaldarrari Iñigo'k bere gaztetako okerbide guztiak zeatz-meatz adierazi eutsezan, baina onek ez ebazan paperean idatzita itzi, eta orregatik orain guk ezin dogu gure jakin naia ase. Baiña andik eta emendik, onek eta arek, esandakoa loturik, zerbait baino geiago jakiterik ba-dogu. Nik orain lekukotestiguen berbak ezer geitu eta kendu barik ekarriko dodaz, gero irakurleak bere eritxia argi artu dagian.

Iñigo'k bere autobiografian esaten dau:

"Ogeita sei urterarte munduko uskerien atzetik ibili nintzan. Arma jokoak batez ere maite nebazan, eta izen andia irabazteko gogo bizi eta andinaia neukan".

Iñigo'ren lagun Polanko'k diñosku:

"Ogeita sei urterarte fedeari eutsi ba'etsan be, ez zan sinismenak eskatzen dauan lez bizi, eta pekatuengatik ardura gitxi eukan. Oso gaiztoa zan joko eta emakume gauzetan, baita arma burruka eta beste olakoetan... Baiña ba zituan berezko beste birtute asko be: gogo sendo eta kementsua eukan, gauza andiak egiteko beti prest aurkitzen zan. Biotz andi eta zabala zeukan, eta au askotan erakutsi eban. Ez eban iñoren aurka gorrotorik gorde, eta Jaungoikoaren aurka be ez eban iñoz biraurik esan".

Lainez'ek, Iñigo'ren beste lagun batek, diño:

"Iñigo gazte burutsu, zentzundun, kementsu eta sutsua zan. Arma-zalea, eta beste onelako okerkerietara makurtua. Aragizko pekatuan zirikatua, baita menperatua".

Iñigo'ren lloba Araotz bergaratar jesulagunak esaten deusku:

"Armen joko eta burrukara joan aurretik Andra Mariari otoitz egiten eutsan, eta barikuetan Jesusen eriotzaren omenez, eta zapatuetan Andra Mariaren oorez, ez eban musikaririk jotzen".

Eta Nadal, beste lagun batek, diño:

"Ez eban erlijioan eta Jaungoikoagan ezer be pentsatzen".

Arebalo'n bere izeko Maria Gebara'koak, gero lekaime sartuko zanak, bein esan ei eutsan:

"Ai, Iñigo, Iñigo, berna azur bat ausi arte ez az bide onera etorriko".

Iñigo Arebalo'tik urtero bein Loiola'ra etorten zan.

1515-ko aratuzteetan Loiola'n zegoan. Jai orreitako jolasen artean Iñigo'k eta bere anaia Peru'k "gauzez, asmo txarrez, eta aurretik alkar artuta, ixilpean eta azpikeriaz, gaiztakeria ikaragarritzko bat egin eben".

Iñigo beldurtuta Iruñea'ra iges egin bearrean aurkitu zan, eta an "eleiz-gizon" zanaren atxakiaz gotzaintegiko auzitegira jo eban, au erriko espetxea baino bigunagoa zalako. Arazo au zala-ta, Gipuzkoa'ko erri agintariak eta Iruñea'ko eleizakoek eztabaida gogor eta luzeak alkarren artean euki ebezan, eta Iñigo benetako "eleiz-gizon" zan ala ez garbitzeko... Auzi au zelan amaitu zan ez dakigu, baina Iñigo'k ikara gogoangarria igaro ebala, bai.

"ikaragarritzko gaiztakeria" ori zer izan ete zan? Eriotzako gauzarik ez beintzat. Olakorik izan ba'litz Iruñea'ra iges egiteak ez eutsan balioko. Baiña ez txantxetako gauza bat be, Loiola'ko jaunaren semea espetxera eroan al izateko... Geiago ezin jakinean, bego onetan.

Auxe da Loiola'ko Iñigo'ren gaztetako okerkeriai buruz jakin al dogun guztia.

Bizkaia beti

Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA